

MATEMATIKA-EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Eguneroko bizitzako egoerak interpretatzea, egoera horien irudikapen matematikoa eginez, kontzeptu, tresna eta estrategia desberdinen bidez informazio garrantzitsuena aztertzeo.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK2, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD2, KPSII5, EK1, EK3, KAKK4.

4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
1.1 Eguneroko bizitzako problemak hitzez edo grafikoki interpretatzea, zenbait estrategia edo tresnaren bitartez (teknologikoak barne) planteatutako galderak ulertuz. 1.2 Eguneroko bizitzako problemetan bildutako informazioa ezagutzea, zenbait estrategia edo tresnaren bitartez planteatutako galderak ulertuz. 1.3 Egoera problematizatu bat ebazten lagunduko duten irudikapen matematikoak erakustea, eskema edo diagramen bitartez.	1.1 Eguneroko bizitzako problemak hitzez edo grafikoki interpretatu, zenbait estrategia edo tresnaren bitartez planteatutako galderak ulertuz. 1.2 Datu eta informazio garrantzitsuak identifikatzea, egoera problematizatu bat ebazteko harremanak eta loturak ezarri. 1.3 Egoera problematizatu bat ebazteko estrategiak bilatzen lagunduko duten irudikapen matematikoak egitea, eskema, diagrama, grafiko eta irudien bitartez.	1.1 Eguneroko bizitzako problemak hitzez edo grafikoki birformulatzea, zenbait estrategia edo tresnaren bitartez planteatutako galderak ulertuz. 1.2 Datu eta informazio garrantzitsuak identifikatzea, egoera problematizatu bat ebazteko harremanak eta loturak ezarri. 1.3 Egoera problematizatu bat ebazteko estrategiak bilatzen lagunduko duten irudikapen matematikoak egitea.

2. Egoera problematizatuak ebaztea, hainbat teknika, estrategia eta arrazoitzeko modu aplikatuz, jarduteko zenbait modu aztertzeo, soluzioak lortzeo eta ikuspuntu formaletik eta planteatutako testuinguruari loturik baliozkoak direla ziurtatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM6, KD3, KD5, KPSII5, HK4, KAKK1, KAKK2, KAKK4.

4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
2.1. Problema bat ebazteko hainbat estrategia erabiltzea, eta gauzatutako prozesua azaltzea. 2.2. Problema bera ebazteko proposamenak aztertzea eta partekatzea, elkarriketaren bidez eta errespetuz. 2.3 Ikaskuntza-egoera baten testuinguruan egoera problematizatu batetik lortutako soluzioen zuzentasun matematikoa eta planteatutako galderekiko koherentzia egiaztatzea	2.1 Problema bat ebazteko zenbait strategiaren artean hautatzea, eta gauzatutako prozesua azaltzea. 2.2 Problema bera ebazteko proposamenak aztertzea eta partekatzea, elkarriketaren bidez eta errespetuz. 2.3 Ikaskuntza-egoera baten testuinguruan egoera problematizatu batetik lortutako soluzioen zuzentasun matematikoa eta testuinguruarekiko eta planteatutako galderekiko koherentzia eztabaidatu.	2.1 Problema bat ebazteko zenbait strategiaren artean hautatzea, eta gauzatutako prozesua azaltzea. 2.2 Problema bera ebazteko proposamenak aztertzea eta partekatzea, elkarriketaren bidez eta errespetuz. 2.3 Ikaskuntza-egoera baten testuinguruan egoera problematizatu batetik lortutako soluzioen zuzentasun matematikoa eta testuinguruarekiko eta planteatutako galderekiko koherentzia argudiatzea.

3. Eguneroko bizitzan oinarritutako egoeretan, aieru errazak aztertzea, formulatzea eta egiaztatzea edo problema matematikoak planteatzea, modu gidatuan, arrazoibidearen eta argudiatzearen balioa aintzat hartuz, haien baliozkotasuna kontrastatzeko, eta ezagutza berria eskuratzeko eta integratzeko.		
Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM1, STEM2, KD3, KD5, KPSII5, KE1, KE2, KE3.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
3.1 Zentzu matematikoekin erlazionatutako aieru matematiko errazak analizatzea, patroiak eta propietateak ikertuz eta dedukzioak modu gidatuan eginez. 3.2 Eguneroko bizitzan aurki daitezkeen problemen eta egoera matematikoen adibideak proposatzea, eta nola ebatz daitezkeen arrazoitzea eta argudiatzea.	3.1 Zentzu matematikoekin erlazionatutako aieru matematiko errazak formulatzea, patroiak, propietateak eta erlazioak ikertuz, eta dedukzioak eginez. 3.2 Eguneroko bizitzako problemen eta egoera matematikoen adibideak sortzea, eta ebatz daitezkeela justifikatzea, norberaren arrazoibideak eta argudioak eskainiz.	3.1 Zentzu matematikoekin erlazionatutako aieru matematiko errazak formulatzea, patroiak, propietateak eta erlazioak ikertuz, eta dedukzioak eginez eta egiaztatuz. 3.2 Problemen eta egoera matematikoen adibideak sortzea, eta ebatz daitezkeela justifikatzea, norberaren arrazoibideak eta argudioak eskainiz.
4. Pentsamendu konputazionala erabiltzea datuak antolatuz, zatika deskonposatuz, patroiak ezagutuz, orokortuz eta interpretatuz, eta algoritmoak modu gidatuan aldatuz eta sortuz, eguneroko bizitzako egoerak modelizatzeko eta automatizatzeko.		
Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, STEM6, KD1, KD3, KD5, KPSII5, EK1, EK2, EK3, KAKK4.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
4.1 Urratsez urrats egiten diren edo errutina bati jarraitzen dioten eguneroko bizitzako egoera errazak modu analogiko eta digitalean modelizatzea, pentsamendu konputazionalaren oinarritzko printzipioak modu arautuan erabiliz. 4.2 Urratsez urrats egiten diren algoritmo errazak automatizatzea, tresna teknologiko egokiekin eta halakorik gabe, pentsamendu konputazionalaren oinarritzko printzipioak modu arautuan erabiliz	4.1 Eguneroko bizitzako egoerak modelizatzea, pentsamendu konputazionalaren oinarritzko printzipioak modu gidatuan erabiliz. 4.2 Urratsez urrats egiten diren algoritmo errazak automatizatzea, tresna teknologiko egokiekin eta halakorik gabe, pentsamendu konputazionalaren oinarritzko printzipioak modu gidatuan erabiliz.	4.1 Eguneroko bizitzako egoerak modelizatzea, pentsamendu konputazionalaren oinarritzko printzipioak modu gidatuan erabiliz. 4.2 Urratsez urrats egiten diren algoritmoak automatizatzea, tresna teknologiko egokiekin eta halakorik gabe, pentsamendu konputazionalaren oinarritzko printzipioak erabiliz.

5. Ideia matematikoen arteko loturak ezagutu eta erabiltzea, eta beste arlo batzuetan edo eguneroko bizitzan inplikaturako matematika identifikatzea, kontzeptuak eta prozedurak elkarrekin lotuz, askotariko egoerak eta testuinguruak interpretatzeko. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: STEM1, STEM2, STEM3, STEM6, KD3, KD5, KPSII5, HK4, KAKK1, KAKK2, KAKK4.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
5.1 Elementu matematikoen arteko loturak egitea, norberaren ezagutzak eta esperientziak aplikatuz. 5.2 Egoerak hainbat testuingurutan interpretatzea, matematikaren eta eguneroko bizitzaren arteko loturak ezagutuz.	5.1 Zenbait elementu matematikoren arteko loturak erabiltzea, norberaren ezagutzak eta esperientziak erabiliz. 5.2 Matematikaren, beste arlo batzuen eta eguneroko bizitzaren arteko loturak erabiltzea testuinguru ez-matematikoetan problemak ebazteko.	5.1 Zenbait elementu matematikoren arteko loturak erabiltzea, norberaren ezagutzak eta esperientziak mobilizatuz. 5.2 Matematikaren, beste arlo batzuen eta eguneroko bizitzaren arteko loturak erabiltzea testuinguru ez-matematikoetan problemak ebazteko.
6. Kontzeptu, prozedura eta emaitza matematikoak modu indibidual eta kolektiboan komunikatzea eta irudikatzea, terminologia matematiko egokia eta ahozko hizkuntza, hizkuntza idatzia, grafikoa eta multimodala erabiliz, ideia matematikoei esanahia eta iraunkortasuna emateko. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, STEM1, STEM2, STEM4, KD1, KD3, KD5, KAKK4.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
6.1 Eguneroko bizitzan zenbait formatutan dagoen hizkuntza matematiko erraza ezagutzea, oinarritzko hiztegi espezifiko eskuratuz eta mezuaren ulermena erakutsiz. 6.2 Prozesu eta ideia matematikoak, problema bat ebazteko jarraitutako urratsak edo lortutako emaitzak azaltzea, hizkuntza matematiko erraza eta zenbait formatu erabiliz.	6.1 Eguneroko bizitzan zenbait formatutan dagoen hizkuntza matematikoa ezagutzea, hiztegi espezifiko eskuratuz eta mezuaren ulermena erakutsiz. 6.2 Prozesu matematikoak zenbait formatutan komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz, bai analogikoa bai digitala.	6.1 Eguneroko bizitzan zenbait formatutan dagoen hizkuntza matematiko erraza interpretatzea, hiztegi egokia eskuratuz eta mezuaren ulermena erakutsiz. 6.2 Aieru eta prozesu matematikoak zenbait formatutan komunikatzea, hizkuntza matematiko egokia erabiliz, bai analogikoa bai digitala.

7. Erronka matematikoei aurre egitean emozioak identifikatzen eta kudeatzen lagunduko duten trebetasun pertsonalak garatzea, norberaren trebetasunetikiko konfiantza sustatuz, akatsa ikaskuntza-prozesuaren zati gisa onartuz eta ziurgabetasun-egoeren aurrean egokituz, pertseberantzia hobetzeko eta matematikaren ikaskuntzaz gozatzeko. Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, STEM5, STEM6, KPSII1, KPSII2, KPSII4, KPSII5, HK3, EK1, EK2, EK3, KAKK1, KAKK3.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
7.1 Erronka matematiko berriei aurre egitean norberaren emozioak identifikatzea, behar denean laguntza eskatuz eta eskainiz, eta, hala, auto-konfiantza garatuz. 7.2 Erronka matematiko berrien aurrean ahalegin eta malgutasunezko jarrera positiboak erakustea, gozamen pertsonalaren iturri gisa, errorea sormenerako eta ikaskuntzarako aukera gisa baloratuz.	7.1 Norberaren emozioak autorregulatzea eta indar eta ahulezia batzuk ezagutzea, erronka matematiko berriei aurre egitean auto-konfiantza garatuz. 7.2 Erronka eta ezagutza matematiko berrien aurrean ahalegin eta jarraitutasuna bezalako jarrera positiboak aukeratzea, errorea ikasteko aukera gisa baloratuz.	7.1 Norberaren emozioak autorregulatzea eta indar eta ahulezia batzuk ezagutzea, erronka matematiko berriei aurre egitean auto-konfiantza garatuz. 7.2 Erronka eta ezagutza matematiko berrien aurrean jarraitutasuna eta erantzukizuna bezalako jarrera positiboak aukeratzea, errorea ikasteko aukera gisa baloratuz.
8. Gizarte-trebetasunak garatzea, besteen emozioak eta esperientziak eta aniztasunaren balioa ezagutuz eta errespetatuz, eta esleitutako rolak dituzten lantalde heterogeneoetan aktiboki parte hartuz, matematikako ikasle gisa identitate positiboa eraikitze, ongizate pertsonala sustatzeko eta harreman onuragarriak sortzeko. Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK5, EK3, STEM3, STEM5, STEM6, KPSII1, KPSII3, KPSII5, HK1, HK2, HK3, EK2, EK3.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
8.1 Talde-lanean aktiboki eta errespetuz laguntzea, egoki komunikatuz, taldearen aniztasuna errespetatuz eta tolerantzian, berdintasunean eta gatazken konponbide baketsuan oinarritutako harreman osasungarriak ezarri. 8.2 Talde-lanean esleitutako zeregina eta rola onartzea, erantzukizun indibidualak betez eta taldearen helburuak lortzen lagunduz.	8.1 Talde-lanean aktiboki eta errespetuz laguntzea, egoki komunikatuz, taldearen aniztasuna errespetatuz eta tolerantzian, berdintasunean eta gatazken konponbide baketsuan oinarritutako harreman osasungarriak ezarri. 8.2 Zereginen banaketan laguntzea eta parte hartzea, esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta errespetatuz, eta helburu partekatuak lortzera zuzendutako kooperazio-estrategia errazak erabiliz.	8.1 Talde-lanean aktiboki eta errespetuz laguntzea, egoki komunikatuz, taldearen aniztasuna errespetatuz eta tolerantzian, berdintasunean eta gatazken konponbide baketsuan oinarritutako harreman osasungarriak ezarri. 8.2 Zereginen banaketan laguntzea, esleitutako erantzukizun indibidualak bere gain hartuz eta errespetatuz, eta helburu partekatuak lortzera zuzendutako kooperazio-estrategia errazak erabiliz.